

## TXOMIN ARTOLA

Txomin Artola Hondarribian sortu zen, Gipuzkoan, 1948ko uztailaren 26an. Gaur egun 72 urte ditu eta kantatzen segitzen du.

Txomin Artola beti musikaria izan da. Txomin Artolak ttikitatik entzun zuen Estatu Batuetako musika. Gorramendiko estatuabatuarren basean lan egiten zuen Duncan izeneko gizon bat eta auzokoa zuen. Horrela ezagutu zuen rock musika (Elvis Presley, Everly Brothers...) Gitarra elektrikoa erosi, eta ingelesez zein frantsesez aritzen zen.

Troublers rock talde osatu zuen 1963 an. Hainbat emenaldi eman zituzten. Soldadutza akitzean, Mikel Laboa eta JosAnton Artzerekin jaialdi batzuk egin zituen eta 1975ean bere lehen diskoa atera zuen. Txomin Artola Haizea taldean egon zen.

Txomin Artolaren kantu ospetsuenak: Aberriaren mugak, Goizeko euri artean, Txakurraren partia...

Kanta: Aberriaren mugak

<https://www.youtube.com/watch?v=sP34ia3ENW0>

## Aberriaren mugak (Txomin Artola )

Nire aberria lurra bezain zaharra da

Baina ez dada lurra bakarrik

Haizeak bezala inguratzen nau eta

Lotzen, askatzen nauelarik.

Nire aberria suaren antzekoa da

Beti bera, berria beti

Epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean

'Ta erretzen ere badaki

Aberriaren mugak; euskarenak

Gure baitan daude gehienak

Euskara zabalduaz lau haizeetara

Zabalgo egiten gara.

Nire aberria harrizko herria da

Hitzezkoa eta hitzezkoa

Altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa

Eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da

Oroimenean arindua

Itsaslaminen baten herdoilezko kantu

Etorkizunez fosildua.

Aberriaren mugak; euskarenak

Gure baitan daude gehienak

Euskara zabalduaz lau haizeetara

Zabalgo egiten gara.

Aberriaren mugak; euskarenak

Gure baitan daude gehienak

Euskara zabalduaz lau haizeetara

Zabalgo egiten gara.

Egileak: Olaia Otxandorena eta Joseba Etxaniz